



UDAL BATZAR BEREZIA

2016ko otsailaren 11a

LEKUA: Udaletxeko Batzar Aretoa.

LEHENDAKARIA: Ioritz Imaz Baztarrika jn.

ZINEGOTZIAK:

Montserrat Delgado Aguirre and.

Aloña Barandiaran Munduate and.

Erkuden Murua Uribe-Etxebarria and.

Rufino Insausti Eciolaza jn.

Aritz Ugarte Munduate jn.

Igor Ariztimuño Iparraguirre jn.

Argoitz Urrestaratzu Lazkano jn.

Aitzol Mendizabal Malkorra jn.

Andoni Gomez Aldanondo jn.

Aratz Urkia Telleria jn

Etorri ez direnak: Iñor ez.

IDAZKARIA: Aitor Iñarra González Jn.

BATZARRA: Berezia. DEIALDIA: Lehenengoa.

ORDUA: Hasiera: Arratsaldeko 18:30etan. Amaiera: 20:00

GAI-ZERRENDA

1.- Kultura zerbitzuen kudeaketa kontratua esleitzea.

2.- Erreguak eta galderak.

GAIK

1.- Kultura zerbitzuen kudeaketa kontratua esleitzea.

Idazkari jaunak azalpenak eman ditu kontratazio prozesuari buruz: lehiaketaren iragarkia 2015eko abenduaren 7an publikatu zen GAOan. Aurkezteko epea bukatu ondoren bi enpresa aurkeztu ziren: Kultur Atelier eta Erro Koop.



Kontratazio mahaia bi aldiz bildu zen kontratazioaren fase ezterdinetan: urtarrilaren 19 eta 26. Sobreen irekiera publikoa izan zen, bai A eta B egun batean, zein C sobreena beste egun batean. Bertara enpresa lehiakideen ordezkariak aurkeztu ziren.

Balorazio teknikoa egin zen lehenengo, eta urtarrilaren 26an egindako bilkuran Kontratazio Mahaia horren emaitzak publikoki eman zituen; bilkura berdinean ekonomikoa egin zelarik.

Balorazio teknikoaren emaitzak eman ondoren lehiakideetako batek helegitea aurkeztu zuen, Erro Koop hain justu. Hori dela eta Plenoak bertan behera utzi zuen esleipena egitea helegitearen terminoak aztertu arte.

Hori egiteko Kontratazio mahaia berri ere elkartu zen otsailaren 2an. Bertan aurkeztutako helegiteak arrazoizko argudioak erabili zituela ikusi zen. Hori dela eta balorazio teknikoa errebisatzea erabaki zen.

Hori guztiaren emaitzak honakoak izan ziren:

	Lan taldea	Lan egiteko modua	Plangintza estrategikoa	Teknikariaren esperientzia	Taldearen esperientzia	TOTALA
Erro	12 (3ren ordezt)	15	10	5 (1,92ren ordezt)	5 (baloratu ez zena)	47
Kultur Atelier	0	10	8	0,33	0,33 (baloratu ez zena)	18,66

Emaitza horiei puntuaketa ekonomikoa erantsita honako emaitza totala ateratu zen:

Guztira: Erro $47 + 21,74 = 68,74$

K. Atelier $18,66 + 50 = 68,66$

Alkate jaunak azalpen gehigarri batzuk ere eman ditu. Gaiaren eztabaidan EH Bildu taldeko zinegotziek (Ugarte, Barandiaran, Urrestaratzu eta Urkia jaun andreak) adierazi dute printzipioz beraiek ez daudela ados enpresa bat kontratatzearekin halako beharra betetzeko, aldiz udalak lan bere garaian Kultura Teknikaria hautatzeko egin zen prozeduran ateratako lan poltsa erabili behar zen udalak zuzenean teknikari bat kontratatzeko.



Beste zinegotzi guztiak esleipena egitearen alde agertu dira.

Hori dela eta udalbatzak, gehiengoz honakoa

ERABAKITZEN DU

Lehena. Erro Koop. enpresaren aldeko esleipena egitea udal kultura kudeatzeko kontratuan.

Prezioa: 35.000 euro urteko, gehi 7.350 € BEZ.

Iraupena: urtebetez kontratua sinatzen den unetik; luzagarria beste bi aldiz. Lanpostua jabetzan dagoen kultura teknikaria bueltatuko balitz kontratu hau bukatu aurretik, kontratua bertan behera geldituko da, kasu honetan udalak Erro Koop.ri hiru hilabeteko abisua emango lioke.

Bigarrena. Berma definitiboa ezarri ondoren, eta dagozkion beste izapideak martxan jarri eta gero, kontratua sinatzea Erro Koop-rekin.

2.- Erreguak eta galderak.

2.1. Idazkariaren errenuntzia: Aitor Iñarra jaunak, udal Idazkari-Kontuhartzailea izan dena 2015. urteko maiatzetik hona, adierazi du martxoan lana utzi beharko duela. Arrazoi pertsonalak direla eta Estatu Batuetara bidaiatu behar du. Zinegotziek eskerrak eman dizkiote egindako lanagatik.

Eta beste gairik ez dagoenez Batzarra bukatutzat ematen da gaueko 20:00ak direnean.